


HAUR HEZKUNTZA GRADUA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea



I MODULOA IRAKASLE FUNTZIOA

2018/19 ikasturtea

Aurkibidea

1.-Sarrera.....	3
2.-Moduloko lanaren bitartez lortu nahi diren kompetentziak.....	4
3.- Aurre irakurketak gaien aurrera egiteko/gaia aukeratu.....	5-6
4.-Taldearen egitura eta tutoretza zeregina.....	7-8
4.-Lanaren gidoia.....	8-9
5.-Lanaren ezaugarri formalak.....	9
6.-Kronograma.....	9-10
7.-Ebaluazio motak eta ebaluazio irizpideak	10-11
8.-Eranskinak.....	12-13

Moduluaren koordinatzailea: Esti Amenabarro Iraola - estibaliz.amenabarro@ehu.eus

Moduluaren irakasle taldea:

Didaktika eta Eskola Antolakuntza: Esti Amenabarro

Hezkuntzaren eta Garapenaren Psikologia: Blanca Rosa Olalde

Hezkuntzaren Teoria eta Historia: Hilario Murua

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika: Garbiñe Bereziartua

Soziologia eta Gizarte Langintza: Maite Espi, Matxalen Garmendia

1.-Sarrera

Jarraian irakurgai duzun dokumentu honen bidez, Haur Hezkuntzako Gradu 1. mailako lehen lau hilekoan burutu behar den moduluko-lana aurkezten da. Lan hau Graduaren burutuko diren 5 modulu-lanen artean lehenena da eta Irakasle Funtzioa du izena. Lehen lauhilekoan dauden ikasgai guztiak osatzen dute modulu-lan hau:



1 irudia. Lehen ikasturteko lehen lauhilabeteko irakasgaiak. Geuk egina.

Moduluko lana diziplinarteko lan bat da (eremu desberdinetako jakintzen arteko loturak egiteko gaitasuna lantzea helburu). Eta bere helburu nagusia, hezkuntza errealitate desberdinen aurrean, praktika edota egitasmo pedagogiko zehatzak behatuz, haien inguruko analisiak egiteko gaitasuna trebatzea da. Modulu honetan aurretiaz, irakasle tutoreen laguntzarekin berariaz aukeratuko den gai baten inguruko lan akademikoa egin behar da; honela, lan akademiko batek bere baitan barnebildu behar dituen elementu guztiak jasotzea garrantzitsua delarik. Esan bezala lan akademiko bat da eta elementu hauek osatu beharko dute: gaiaren inguruko testuinguru teoriko egokia eta pertinentea, gai horrekin zer ikusia duen alderdi praktikoa enpirikoa (datu bilketa: esperientzien azalpena, elkarrizketak, dokumentu baten analisisa eta emaitzen azterketa), ondorioak eta, azkenik, erreferentzia bibliografikoak. Lan honetan inportantea da, forma, edukia eta egiten diren ekarpenak egokiak izatea.

Modu berean taldean burutuko den lan bat izango da eta garrantzitsua da, talde dinamika egokian burutzea aipatu lana.

2.- Moduluko lanaren bitartez garatu nahi diren kompetentziak

HH 1 maila kompetentziak	
G003	Dibertsitate indibiduala, soziala eta kulturala aitortu eta errespetatzea. Ikaskuntza-espazioak dibertsitate-testuinguruetan diseinatu, arautu eta kudeatzea, betiere kontuan izanik ikasleen hezkuntza-premia bereziak, genero-berdintasuna, ekitatea eta giza eskubideekiko errespetua.
G009	Haur-hezkuntzako eskolen antolamendua eta horren funtzionamenduak eskatzen dituen ekintzen dibertsitatea ezagutzea. Bizitzan zehar irakaskuntzalanak hobetzen eta zientzia, pedagogia eta gizarte arloan gertatzen diren aldaketetara egokitzen joan behar duela onartzea.
G013	Ikerketatik abiatuta hezkuntzak dituen kontzepzioak aztertzea eta balioestea, baita Hezkuntza Administrazioaren curriculum-proposamenak ere, hezkuntza-proiektuak eta programazio-unitateak diseinatu eta garatzeko, curriculum-a testuinguru soziokultural aldakorretara egokitzea ahalbidetuko baitu horrek.
G015	Komunikazio-kompetentziak aberasteko helburua duten estrategia didaktikoak diseinatzea (ahozkoak, idatzizkoak, ikusmenekoak, gorputzekoak, afektiboak eta musikalak) garapen integral baten testuinguruan.

Burutuko dugun lan honen bidez lauhilekoa osatzen duten ikasgai desberdinak modu egokian barneratu eta horietan oinarrituta lan bat egiteko gaitasuna landu nahi da. Unibertsitatean, ikerketak bere pisua duenez, lehen unetik beretik, ikasleak gai edota jakin min batean oinarrituta gai baten inguruan ikertzen jartzeko lehen urratsa dela esan genezake.

3.- Aurre irakurketak gaiaren aukeraketa egiteko

Lanaren prozesuari ekin aurretik, taldekide guztiek irakurtzea derrigorrezkoak diren hainbat artikulua eta liburu kapitulu interesgarri proposatzen ditugu, gai atal bakoitzarekin lotura dutenak, honek gaia aukeratu eta kokatzeko prozesua erraztea du helburu:

Derrigorrez irakurtzekoak lana hasi aurretik:

1.-Etxeberria, F., Murua, H., Karrera, I. (2010). *Competencias específicas del profesorado que trabaja con alumnado inmigrante*. En *Inguruak*, n ° extra,143-162 orriak

2.-Hik Hasi aldizkaria (2018). *Francesc Imbernoni elkarrizketa*. 299. Zenbakia. 2018 ekaina. 19-25 orriak

3.-Fdez. Enguita, M., Mena Martínez, L. y Riviere Gómez, J. (2010).- *El problema del fracaso y el abandono escolar*. En Fdez. Enguita, M., Mena Martínez, L. y Riviere Gómez, J. (2010).- *Fracaso y abandono escolar en España*. Colección Estudios Sociales. Ed.: Fundación La Caixa, nº 29, pp. 13-30.

4.-Gordillo Gordillo, M., & Ruíz Fernández, M., & Sánchez Herrera, S., & Calzado Almodóvar, Z. (2016). *Clima afectivo en el aula: vínculo emocional maestro-alumno*. *International Journal of Developmental and Educational Psychology*, 1 (1), 195-201. <http://www.redalyc.org/pdf/3498/349851776022.pdf>

Aukeran irakurgai:

Etxeberria, F., Murua, H., Garmedia, J., Arrieta, E. (2012-2013): *Menores inmigrantes no acompañados (MENA) en Euskadi y Aquitania: elaboración y puesta en marcha de*

un plan de formación para educadores/as y responsables, en *Inguruak*, n ° 53-54, pp. 218-229

Murua, H., Etxeberria, F., Garmendia, J., Arrieta, E. (2012): *¿Qué otras competencias debe tener el profesorado del alumnado inmigrante?*, en *Magis*, vol: 5, n ° 10, pp. 109-132

Mayorga, M.J., Santos Guerra, M.A, Madrid Vivar, D. (2014). *Formación y actualización de la función docente*. *Diálogos Pedagógicos*, 24. Zenbakia, 2014 urria. 11-28 orriak

Fdez. Enguita, M. (2004). *Las funciones sociales de la escuela*. En Fdez. Enguita, M. (2004). *La escuela a examen*. Madrid: Pirámide Argitaletxea. 27-42 orriak.

Fdez. Enguita, M., Mena Martínez, L. y Riviere Gómez, J. (2010).- *"Las dificultades de la institución escolar en su edad tardía"*. En Fdez. Enguita, M., Mena Martínez, L. y Riviere Gómez, J. (2010).- *Fracaso y abandono escolar en España*. Colección Estudios Sociales. Ed.: Fundación la Caixa, n° 29, pp. 172-183.

Gaia aukeratzea

Horiek horrela, hainbat adierazle proposatzen dira lana egiteko, ikasle talde bakoitzak aukeratu eta horien arabera ikasgaiekin lotura egokiak eginez, lan egiteko gai bat proposatuz.

Immigrazioa eta eskola.
Haurrak gizarteratzea eskolaren testuinguruan.
Haurrak gizarteratzea familiaren testuinguruan.

Aukeratzen den adierazle edota gai multzo bakoitzaren arabera, moduluko lanaren bidez eta gaiaren izaera aintzat hartuta, honako konpetentziak landu nahi dira:

MODULU-LANAREN KONPETENTZIAK
1.Hezkuntza guneetako aniztasun indibidual, sozial eta kulturalari buruz errebisio bibliografikoa talde lanean egin, desberdintasun etnikoak, klase sozialak eta genero desberdintasunak analizatuz. (G003)
2.Gizarte eremu ezagunetako hezkuntzaren historian gertatu diren aldaketei buruzko informazioa bildu, ordenatu eta horren sintesia egin, banaka eta taldean egindako gogoetaren ondorioz gaur egungo egoerarekin konparatuz. (G009)
3.Hezkuntzako erakundeetan informazioa jasotzeko elkarrizketa-gidoiak diseinatu, elkarrizketak burutu eta datuak analizatu, informazio emaileen ezaugarriak eta egoerak aurreikusita, elkarrizketatuarekiko harremana zainduz. (G013)
4.Hezkuntza jardueran esanguratsuak diren egoerak eta horiei buruzko hausnarketak aurkeztu, bai ahoz, bai txosten idatzien bidez, testu akademikoen ezaugarri eta egituretara moldatuz informazio erabileraren etika arauak aintzat hartuz. (G015)

3.-Moduluko lana egiteko taldearen osatzea eta tutoretza zeregina

Taldean egin behar dira lanak. Taldearen ezaugarriak honako hauek dira:

-Taldekideen kopurua 4/5ekoa izango da, gehienez, ez gehiago.

-Ikasleek osatuko dituzte taldeak eta taldearen partaideak eta bestelako informazioarekin osatuta fitxa bat bete eta koordinatzaileari entregatu behar zaio (ikus 1. Eranskina); bertan, adieraziko du talde bakoitzak gaia eta taldekide guztien izenak, beren argazkiekin. Fitxa koordinatzaileari eman beharko zaio irailaren 24-28ko astean . Behin izena emanaz gero taldeko lanetan parte hartzera konprometitzen dira.

Behin hori egin ondoren, talde bakoitzari tutore-irakasle bat esleituko zaio. Eta aipatu tutore irakaslearen laguntza eta gidaritza izango du ikasle taldeak. Garrantzitsua da, irakasle tutorearekin egin beharreko bilerak prestatzea. Taldeek dokumentu honetan zehaztuta dauden epeetan tutoreak gainbegiratzeko zirriborroak aurkeztuko dituzte.

4.-Lanaren gidioia

Azala

Aurkibide zenbakitua

1.-Sarrera (orri 1)

- Gaiaren aurkezpena
- Lanaren atalen laburpena

2.-Testuinguru teorikoa eta kontzeptuala (Alderdi teorikoa) (5 orri)

- Gaiaren inguruko informazioa pertinentea, gaian adituak direnen informazioa, iturriak behar bezala aipatuz (beti ere APA arauak beteaz). Oso garrantzitsua da lehen mailako iturri eta erreferentzia egokiak erabiltzea. Horretarako informazio egokia bilatzeko bilatzaile egokiak erabilia.
- Gaia ondo kokatzen lagunduko duten kontzeptuen definizioak
- Aukeratu duzuen gaiak hezkuntzaren eremuan izan duen bilakaera

3.-Metodologia: lanaren atal praktikoa (10 orri) Gure gaiarekin lotura egiteko praktikan, datuen bilketa. Horretarako egin daitezke:

- elkarrizketak eta bertan lortutako informazioen lanketa egin behar da** (kontuz atal honetan ez da transkribapena jartzen, hori eranskinetan). Atal hau derrigorrezkoa da.

4.-Egin dugun prozesuaren ondoren, lanaren emaitzen azterketa

5.Ondorioak (4 orri)

- Lanaren laburpena
- Lanaren inguruko iritzia, zer ondoriotara iritsi diren
- Garatu ez diren puntuak, baina kontuan izan beharko liratekeenak
- Gaia ezagututakoan sortzen zaizkien galdera berriak.
- Taldea lanaren balorazioa (talde bezala prozesuaren ebaluazioa)

6.Erreferentzia bibliografikoak (Bibliografia akademikoa) (APA)

7.Eranskinak (lana indartzeko eta osatzeko egokia izan daitekeen elementu oro, baina ez dadila betegarri soil izan). Elkarriketen gidoiak eta transkribapenak ere atal honetan ezarri daitezke.

5.-Lanaren ezaugarri formalak

Gehienez 20 orriko lana izan behar du, azala, aurkibidea, erreferentziak eta eranskinak kontatu gabe.

Letra tamaina 12

Letra mota: Arial, Calibri edo Times New Roman

Lerro-arte 1.5

Orrri guztiak zenbatuak eta aurkibidearekin bat datozenak.

Marjinak 2.5 zentimetrokoak izango dira eta sangriak 5 karakterekoak.

Oso garrantzitsua da idazkera zaintzea, euskarazko formak zein edozein testu akademikorik zehazten dituen irizpideak beteaz.

Lanak edozein lan akademikorik dagokion kode deontologikoa bete beharko du. Lanak erabat originala izan behar du eta bertan taldeko lanak bere isla zuzena izan behar du. Plagioa ez da onartuko eta kasu horietan lana ez da onartua izango. Bestetik, lanaren zehar agertzen diren pertsonen konfidentzialtasuna errespetatu behar da, euren izenak edota ikastetxearenak aipatzekotan (ez da beharrezkoa), dagozkion baimenak eskatuz.

6.-Lan kronograma

Lan modularra egiteko gogoratu beharreko datak honako hauek dira:

IRAILAK 10: Ikasturtearen hasiera.

IRAILAK 18: Diziplinarreko lana (DILAN) ikasleei aurkeztu. Koordinatzaileak egingo du.

IRAILAREN 24tik 28ra bitartean taldeak osatu, gaia aukeratu eta taldeen fitxak entregatu irakasleari. Irakasle tutoreak izendatu.

URRIAK 5: Gairekin lotura duen informazio bilaketa bukatu.

URRIAK 12: Fokalizazioa. Gaia lantzeko proposatuko duzuen lehen eskema eta hori lantzeko hautatu dituzuen iturri bibliografikoak eman tutoreari.

AZAROAK 2: Egituratzeari. Lanaren lehen zirriborroa eman tutoreari. Feedback prozesua.

ABENDUAK 3: Txosten idatzia entregatu tutoreari.

ABENDUAK 10-14: Ahozko aurkezpenak.

ABENDUAK 20: Lauhilekoa bukatu.

7.- Ebaluazio modua eta irizpideak

Klasera etortzeko aukera dutenek moduluko proiektua egin beharko dute. Asistentzia kontrolatuko da eta gutxienez aurrez aurreko eskola orduetatik %75ean etorri behar da. Moduluko lan bakoitzak bi atal ezberdin izango ditu: lan idatzia eta ahozko aurkezpena. Eta ikasle denek bietan parte hartu beharko dute.

Moduluko lanak 1.5 puntu balio ditu.



Moduluko lanaren puntuazioa eta irakasgaien kreditu kopurua kontuan izanda 0.9 kreditu, hau da, 9 ordu, eskaini behar dizkio irakasgai bakoitzak moduluari.

Moduluko lanaren ahozko aurkezpenak 10 minutukoak izango dira eta bi irakasleren (tutorea eta moduluko beste irakasle bat) eta ikaskideen aurrean egin beharko dira. Lan idatzia ere bi irakasle horiek zuzenduko dute.

Moduluko lan idatzia suspendituz gero, berriz egin beharko da tutorearen irakasgaiaren azterketa egunerako.

Etortzerik izango ez dutenek, berriz, proiektuari dagozkion konpetentziak lortu dituztela erakusteko azken froga bat egin beharko dute irakasgai bakoitzean.

Hiru irakasgai baino gutxiago dituzten ikasleek ere ez dute moduluko lana egin behar izango. Proiektuari dagozkion konpetentziak lortu dituztela erakusteko azken froga bat egin beharko dute irakasgai bakoitzean.

MODULU-LANAREN KONPETENTZIAK		EBALUAZIO IRIZPIDEAK	BAI	EZ	
1 kompetentzia		Erabiltzen duten informazioa ondo lotzen zaio gaiari (aniztasun indibiduala, soziala, kulturala)			
		Kide bakoitzak 2 erreferentzia garrantzitsu ekarri ditu.			
		Hezkuntza gunetako aniztasunari buruzko bibliografian sakondu dute.			
		Bibliografiaren analisisian desberdintasun etnikoak, klase sozialak edo genero desberdintasunak aztertu dira.			
		Taldean denek ekarpenak aintzat hartu dira.			
		Lan bileren aktak egin dituzte.			
2 kompetentzia		Hezkuntzako gaiari buruzko informazio esanguratsua azaltzen du.			
		Hezkuntzaren historian gertatu diren aldaketei buruzko ideia nagusiak ondo lotzen ditu.			
		Taldekide bakoitza informazio guztiaren jabe da.			
3 kompetentzia		Ikastetxera joan aurretik zentroari buruzko informazio orokorra bildu du.			
		Elkarrizketaren/en gidoia ikastetxera egokitzuz prestatu dute.			
		Elkarrizketa aurretik irakasleekin kontsultatuz antolatu dute.			
4 kompetentzia	Idatzia	Hezkuntza egoerak eta horien hausnarketak bilduz idatzi dute txostena.			
		Ideiak ongi lotzen ditu, argudioaren haria mantenduz			
		Txostenak izenburua eta partaide guztien datuak ditu. Txostenak orri guztiak zenbatuak ditu, eta aurkibidearekin bat datoz. Taulak eta grafikoak zenbatuak daude eta iturriak aipatzen dira			
		Formatu arauak zorrozki errespetatu dira (luzera, letra mota eta tamaina, lerroarte)			
		Atalen luzera mugak errespetatu dira			
		Testua zuzen idatzia dago (akats ortografikorik gabe)			
		Idazlanean etika arauak errespetatu dira: ez da plagiatua, ez kopiatua.			
		Iturriak aipatu dira APA arauen arabera.			
	Ahozkoa		Hezkuntza jarduera esanguratsuei buruz kideen aurrean hitz egiteko gai da.		
			Taldekide guztiek gorputz adierazpena, ahots tonua, erritmoa eta komunikatzeko jarrera zaindu dute.		
			Edukiak adierazgarriak eta egokiak dira.		
			Informazioa ondo egituratua eta antolatua dago.		
			Euskarri teknologikoak ondo diseinatu dira eta ondo erabili dira.		

Laugarren kompetentziarekin lotzen den AHOZKO AZALPENAK: 0.5 puntu (Item bakoitzak 0.1). LAN IDATZIAri dagozkion lau kompetentziak: puntu 1 (Item bakoitzak 0.05)

1 Eranskina: ikasleen talde fitxak koordinatzaileari emateko

Taldearen izena eta taldearen kodea:	
Taldea nortzuk osatzen duzuen (izena eta bi abizenak)	
Landuko duzuen gaia:	
Kontakturako posta elektronikoa erabilgarri bat	

2 Eranskina: ikasleen moduluari buruzko ebaluazio galdetegia

Moduluak aurreikusiak zituen kompetentziak lortu direla uste al duzue?

Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?

Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).

Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean?

(Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).

Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?